




# 2/2024 LEGEA, HAUR ETA NERABEENA

Haur eta Nerabeentzako  
egokitzapena



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

ONGIZATE, GAZTERIA ETA  
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,  
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO



2/2024 LEGEA gehiago  
jakin nahi duzu?  
QR eskaneatzen du

# AURKIBIDEA

**Sarrera** 5  
**Zioen azalpena** 6

## Atariko titulua Xedea, eremua eta jarduketa-ardatzak 6

**I. Kapitulua** Xedea eta eremua 6  
**II. Kapitulua** Definizioak eta jarduketa-ardatzak 7

## I. Titulua Xedapen orokorrak 8

**I. Kapitulua** Printzipioak 8  
**II. Kapitulua** Komunikatzeko eginbeharra eta informazioa isilean gordetzeko eginbeharra 9

## II. Titulua Pertsona adingabeen eskubideak eta eginbeharrak 10

**I. Kapitulua** Pertsona adingabeen eskubideak 10  
**II. Kapitulua** Pertsona adingabeen eginbeharrak 13

## III. Titulua Haurren eta nerabeen ongizatea eta haien eskubideen egikaritzea sustatzea 14

**I. Kapitulua** Xedapen orokorrak 14  
**II. Kapitulua** oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak sustatzeko jarduketak 14

**III. Kapitulua** Familia-eremuan hazteko eta harremanak izateko eskubidea sustatzeko jarduketak 14

**IV. Kapitulua** Bizi-baldintza duinak izateko eta gizarte-inklusiorako eskubidea sustatzeko jarduketak 14

**V. Kapitulua** Osasunerako eskubidea sustatzeko jarduketak 14

**VI. Kapitulua** Hezkuntzarako eskubidea sustatzeko jarduketak hezkuntzarako eskubidea sustatzeko jarduketak 14

**VII. Kapitulua** Kulturarako eskubidea sustatzeko jarduketak 14

**VIII. Kapitulua** Jarduera fisikorako eta kirolerako eskubidea sustatzeko jarduketak 14

**IX. Kapitulua** Aisialdi hezigarriko jarduerak sustatzeko jarduketak 15

**X. Kapitulua** Lan-eremuko eskubideak sustatzeko jarduketak 15

**XI. Kapitulua** Ingurumen osasungarria izateko eskubidea sustatzeko jarduketak 15

**XII. Kapitulua** Ingurune segururako eta mugikortasunerako eskubidea sustatzeko jarduketak 15

**XIII. Kapitulua** Informaziorako eskubidea sustatzeko jarduketak 15

**XIV. Kapitulua** Harremanaren, informazioaren eta komunikazioaren teknologietarako eskubidea sustatzeko jarduketak 15

**XV. Kapitulua** Kontsumoaren arloko eskubideak sustatzeko jarduketak 15

## **IV. Titulua** Haur eta nerabeen osasunerako, hezkuntzarako, ongizate materialerako eta gizarte-inklusiorako kaltegarriak diren egoeren prebentzioa, detekzioa eta arreta

**I. Kapitulua** Osasun fisiko eta mentalerako kaltegarriak diren egoeren prebentzioa, detekzioa eta arreta

**II. Kapitulua** Hezkuntza-garapenerako kaltegarriak diren egoeren prebentzioa, detekzioa eta arreta

**III. Kapitulua** Ongizate materialerako eta gizarte-inklusiorako kaltegarriak diren egoeren prebentzioa, detekzioa eta arreta

## **V. Titulua** Haurren eta nerabeen kontrako indarkeria-egoeren prebentzioa, detekzioa eta babesa

**I. Kapitulua** Xedapen orokorrak

**II. Kapitulua** Haurren eta nerabeen kontrako indarkeriaren prebentzioa

**III. Kapitulua** Haurren eta nerabeen kontrako indarkeria-egoeren detekzioa eta esku-hartzea

## **VI. Titulua** Babesgabetasunarekiko zaurgarritasun-egoeren eta babesgabetasun-egoeren prebentzioa, detekzioa eta babesa

**I. Kapitulua** Xedapen orokorrak

**II. Kapitulua** Babesgabetasunarekiko zaurgarritasun-egoeren eta babesgabetasun-egoeren prebentzioa

**III. Kapitulua** Babesgabetasuna detektatu eta baloratzea

**IV. Kapitulua** Administrazioaren babes-jarduna

**V. Kapitulua** Adopzioa

## **VII. Titulua** Gizarte- eta hezkuntza-arloko arreta ematea zigor-legearekin gatazkan dauden pertsona adingabeei

**I. Kapitulua** Eremu subjektiboa

**II. Kapitulua** Prebentzio-ekintza, printzipioak eta baliabide material eta pertsonalak

**III. Kapitulua** Neurrien tipologia eta neurrien betearazpena

**IV. Kapitulua** Diziplina-araubidea

**V. Kapitulua** Neurriak betearaztearen jarduketa osagarriak

## **VIII. Titulua** Erakunde arteko lankidetzaren eta koordinazio-organoen eta aholkularitzako eta gizarte-partaidetzako organoak 22

**I. Kapitulua** Erakunde arteko eta sektore arteko elkarlan, lankidetzaren eta koordinaziorako organoak 22

**II. Kapitulua** Aholkularitzako eta partaidetzako organoak 22

## **IX. Titulua** Haur eta nerabeentzako arretaren eremuko garapen eta hobekuntza 22

**I. Kapitulua** Informazioa eta arretaren kalitatea 22

**II. Kapitulua** Haurren eta nerabeen behatokia 22

## **X. Titulua** Eskumen-araubidea 23

## **XI. Titulua** Arau-hauste eta zehapen administratiboak 23

**I. Kapitulua** Arau-hausteak 23

**II. Kapitulua** Zehapenak 23

**III. Kapitulua** Prozedurazko xedapenak 23

## BARRUAN

### 2/2024 Legea, Haur eta Nerabeena – Haur eta Nerabeentzako egokitapena\*

Haur eta Nerabeei buruzko otsailaren 15eko 2/2024 Legearen helburua da Euskadiko haur eta nerabe guztien eskubideak zaintzea eta babestea. Lege honen bidez, inguru seguruan bizi zaitezela ziurtatu nahi da, zuen duintasuna errespetatuta, hazteko eta erabat garatzeko aukera emango dizuen inguru batean. Lege honek pertsona eskubidedunak zaretela aitortzen du. Eta hori oso garrantzitsua da guztiontzat, izan ere:

Zuen eskubide eta eginbeharren arau-esparru osoa eta eguneratua sortzen du.

Adingabeen interes gorena lehenesten du.

Zeharkako legea da haurren inguruko politika guztietarako.

Gizarte osoa inplikatzeko du, bai sektore pribatua, bai erakunde publikoak.

Erabakiak hartzen eta zuen eskubideak defendatzen parte har dezazuen sustatzen du.

Haur eta Nerabeei buruzko 2/2024 Legeak 4 ardatz ditu:

Euskadiko haur eta nerabeen eskubideen sustapena.

Adingabeentzako kaltegarriak diren egoerak prebenitu, detektatu eta artatzea.


Babesa, indarkeria-, zaugarritasun- eta babesgabetasun-egoeren aurrean.

Adingabearen errehabilitazio integrala.


Haur eta Nerabeen Lege berriaren beste puntu garrantzitsu bat zuei zuzenean eragiten dizuen erabakietan parte hartzeko eskubidea da. Horren barruan sar daitezke zuen hezkuntzarekin lotutako erabakiak eta zuen ongizateari eta garapenari buruzko gaiak. Zuen eskubideak ezagut eta defenda ditzazuen ere nahi du Legeak, zuen parte-hartzea aktiboki sustatuz, zuen eskubideen defentsan seguru eta gaituta senti zaitezten.

Azken batean, oso tresna garrantzitsua da Lege hau, Euskadiko haur eta nerabe guztiak babesteko. Gainera, giza eskubideek zuen beharrak kontuan hartzeko izan duten bilakaeraren emaitza da. Erakundeek eta gizarte osoak zuen eskubideak bermatzeko zeregin aktiboa dutela azpimarratzen du Legeak, baita garrantzitsua dela arauak egungo errealitatera egokituta egotea ere.

(\* Testu honen edukiak ez du ondorio loteslerik Administrazioarentzat. Informazio hutsa da, eta ezin izango da erreklamazio edo errekurtsioetan aurkeztu.



ONGIZATE, GAZTERIA ETA  
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA  
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,  
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO



## Zioen azalpena

Haur eta Nerabeei buruzko 2/2024 Legearen zioen azalpenean azaltzen da zergatik den hain garrantzitsua zuen eskubideak babesteko dituen lege bat izatea. Horretarako, nazioarteko arauak hartzen ditu kontuan, hala nola Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa. Konbentzio horrek dio haur eta nerabeek, babesa jasotzeko eskubidea izateaz gain, eskubide gehiago dituzuela.

Zuen eskubideak benetan baliatu ahal izan ditzazuen dago pentsatuta Legea, bai eta zuen inguruan, eskolan, familian eta gizartean gertatzen den guztian parte hartzen laguntzeko ere. Zuen bizitzari eragiten dietenaz iritzia eman ahal izateko ahotsa ere ematen dizue. Horrela, aktiboki parte har dezakezue erabakiak hartzen, zuen iritzia garrantzia baitu.

Gainera, Legeak gogorarazten digu guztiok dugula zuek zaintzeko ardura: familiak, eskolak, Administrazio Publikoak eta gizarteak, oro har. Denok lagundu behar dugu zoriotsu hazi eta izan zaitezten leku seguru bat sortzen.

Laburbilduz, 2/2024 Legeak zuen eskubideak babesteaz gain, hazteko, ikasteko eta gizartean parte hartzeko aukera ere ematen dizue.

**LABURPENA:** 2/2024 Legeak Euskadiko haur eta nerabeen eskubideak babesten ditu, haien garapenerako eta segurtasunerako haien ongizatea, parte-hartze aktiboa eta gizartearen, familien eta administrazio publikoen arteko erantzunkidetasuna bermatuz.

## Atariko titulua

### Xedea, eremua eta jarduketa-ardatzak

#### I. Kapituluak Xedea eta eremua

Kapitulu honek Legearen zergatia azaltzen du, bai eta Euskadiko haur eta nerabeen eskubideak babesteko nola aplikatzen den ere.

##### 1. Art. Xedea

Legearen bidez lortu nahi dena da Euskadiko adingabeek beren eskubideak errespetatuta ikustea. Gainera, botere publikoen erantzukizunak eta zuen babesa ziurtatzeko jarraitu beharreko printzipioak zehazten ditu.

##### 2. Art. Eremua

Legea Euskadin bizi diren edo une horretan Euskadin dauden adingabeei aplikatzen zaie, edozein dela ere haien nazionalitatea, jatorria eta administrazio-egoera. Lege berak adierazitako beste egoera batzuetan ere aplikatuko da.

##### 3. Art. Arauek haur eta nerabeengan duten eragina

Artikulu hau arau berriak abian jartzeko kontuan hartu beharreko gauzetan oinarritzen da. Horregatik, artikulu honek dioenez, arauak haurrei eta nerabeei nola eragiten dieten begiratu behar da, zuen ongizatea beti lehentasuna izatea ziurtatzeko.

##### 4. Art. Aurrekontu-lehentasuna

Artikulu honen arabera, euskal administrazio publikoek zuen premien babesa, prebentzioa eta arreta sustatzeko nahikoa baliabide bideratuko dituzte, guztiok ingurune seguru eta osasungarri batean hazi zaitezten.

##### 5. Art. Erantzunkidetasun-eginbearra

Haurrak eta nerabeak babesteko erantzukizuna ez da botere publikoena bakarrik, baita familia eta gizartearena ere, eta guztiok lagundu behar dugu zuek zaintzeko.



## II. Kapitularia Definizioak eta jarduketa-ardatzak

Kapitulu honek Euskadiko haur eta nerabe guztiak babesteko funtsezko kontzeptuak eta jarduketa-puntu nagusiak azaltzen ditu. Hemen, zuen eskubideak nola sustatu, arriskuei nola aurrea hartu, indarkeriatik nola babestu eta inoiz egoera zailean bazaudete zuei babesa nola emateaz hitz egiten da. Gainera, osasunean, hezkuntzan eta gizarte-zerbitzuetan egiten diren esku-hartzeen berri ematen da, laguntza behar duzuen modu seguruan hazteko aukera izan dezazuen.

### 6. Art. Kontzeptuak

Artikulu honek zuen eskubideak ulertzeko garrantzitsuak diren hitzak definitzen ditu. Adibidez, "persona adingabeak", "haurrak", "nerabeak", "kontzebitua" eta "legezko ordezkariak" hitzek esan nahi dutena.

### 7. Art. Jarduketa-ardatzak

Lege honen funtsezko puntuetan sartzen dira zuen ongizatea sustatzea, arazoak edo arriskuak prebenitzea, indarkeriatik babestea eta legearekin gatazkan daudenei laguntzea. Ardatz horiek guztiak orekan eta harmonian hazteko aukerarik onenak izango dituzuela ziurtatzen dute.

### 8. Art. Sustapena

Artikulu honek zuen eskubide eta betebeharren ezagutza sustatzeko moduz hitz egiten du, guztiok elkar errespetatu dezagun. Halaber, ziurtatzen du gainerako gizarteak ulertzea zein garrantzitsua den zuek zuen garapenerako egokia den ingurune batean hazi ahal izatea.

### 9. Art. Prebentzioa

Hemen, kalte egin diezazuket arazoak saihesten laguntzen duten politikez hitz egiten da. Horrek barne hartzen du arrisku pertsonalak eta sozialak murriztea, guztiok bizitza seguruagoa izan dezazuen.

### 10. Art. Arreta

Artikulu honek ziurtatzen du osasunaren, hezkuntzaren eta gizarte-zerbitzuen arloetan beharrezko esku-hartzeak egingo direla zuen adinarekin guztiz bat etorritik haz zaitezten.

### 11. Art. Indarkeriaren aurkako babesa

Artikulu honek indarkeriari aurrea hartzeko eta erantzuteko hartzen diren neurri guztiei buruz hitz egiten du, zuen bizitzako alderdi guztietan etxean, eskolan edo beste leku batzuetan babestuta zaudetela ziurtatuz.

### 12. Art. Babesgabetasun-egoeretatik babestea

Artikulu hau zuei babesa emateko pentsatuta dago, inoiz arrisku-egoera batean bazaudete edo ondo zaintza egokia ez baduzue. Babestuta egotea eta behar duzuen laguntza jasotzea ziurtatzen da.



## I. Titulua

### Xedapen orokorrak

## I. Kapitulua Printzipioak

Kapitulu honek zuek babesteko printzipio garrantzitsuenak ezartzen ditu. Zuen eskubideak bermatzeaz hitz egiten du, zuen bizitzei eragiten dieten erabakietan parte har dezakezuela ziurtatzeaz, horrela pertsona gisa garatzea erraztuz. Erakunde pribatuekiko lankidetzaren erabazpena da, guztia gainbegiratuta eta modu egokian egiten dela ziurtatuz. Gainera, irabazi-asmorik gabeko erakundeei laguntzea sustatzen da, zuen parte-hartzea susta dezaten. Adingabe guztien garapen bidezkoa eta berdintasuneko bermatzeko pentsatuta dago hori guztia.

### 13. Art. **Jarduteko printzipioak**

Artikulu honen arabera, herri-administrazioek Lege honetan jasotzen diren printzipioen arabera egokituko dute beren jarduna, bai eta inplikaturako hainbat eremurekin lotuta aplikatzekoak diren indarreko beste printzipio batzuen arabera ere. Artikulu honek zuen eskubideak bermatzen dituzten, aukera-berdintasuna ziurtatzen duten, aktiboki parte hartzea ahalbidetzen duten eta guztia berdintasun- eta errespetu-ikuspegiarekin egitea ahalbidetzen duten printzipioak biltzen ditu, besteak beste. Gainera, efizienteak izatea eta zuen garapen integrala ziurtatzeko jarduteko modua etengabe hobetzea bilatzen da.

### 14. Art. **Gizarte- eta merkataritza-ekimenarekiko elkarlana**

Artikulu honek ziurtatzen du adingabeekin lan egiten duten erakunde pribatu, sozial edo komertzialen zerbitzuek arau jakin batzuk bete behar dituztela eta gainbegiratu egin behar direla. Horrek bermatzen du zuek beti ondo zainduta eta babestuta egotea.

### 15. Art. **Irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimena sustatzea**

Administrazio publikoek lege honetan jasota ez dauden jarduerak sustatu edo babestu ahal izango dituzte; batez ere, jarduera berritzaile eta esperimentalak arreta-zerbitzu berrietan, zerbitzuak hobetzera bideratutako ikerketa-jarduerak, parte-hartzea sustatzera bideratutakoak, eta, bereziki, adingabeen arteko elkarrekin sustatzera bideratutakoak, dirulaguntzen edo hitzarmenen bidez.





## II. Kapitularia Komunikatzeko eginbeharra eta informazioa isilean gordetzeko eginbeharra

Kapitulu honetan, hurrei eta nerabeei eragiten dieten indarkeria- edo babesgabetasun-egoerak nori jakinarazi behar zaizkion azaltzen da. Halaber, arriskuan dauden adingabeei buruzko informazioa segurtasun eta konfidentzialtasun handiz tratatuko dela bermatzen du, zuen ongizatea eta eskubideak beti babesteko.

### 16. Art. Herritarrek komunikatzeko duten eginbeharra

Artikulu horren arabera, haur edo nerabe baten aurkako indarkeria- edo babesgabetasun-seinaleak ikusten dituen edonork agintariei jakinarazi behar die. Gainera, eskolara joaten ez diren adingabeak badaude, jakinarazi egin behar dute.

### 19. Art. Pertsona adingabeek komunikatzea

Artikulu honek adierazten duenez, haur edo neraberen batek indarkeria- edo babesgabetasun-egoera bat ikusten edo bizi badu, modu seguru eta konfidentzian salatu ahal izango du, bere informazioa baimenik gabe partekatzeko beldurrik gabe.

### 17. Art. Komunikatzeko eginbehar kualifikatua

Artikulu honek dioenez, haur eta nerabeekin lan egiten duten profesionalak agintariei abisatu behar diete, haur edo nerabe batenganako indarkeria- edo babesgabetasun-seinaleak ikusten badituzte.

### 18. Art. Funtzio publikoak betetzeko lege-betebeharrean oinarritutako datu-tratamendua

Administrazioek datu garrantzitsuak bil ditzakete zuek babesteko, betiere pribatutasunari eta datu pertsonalen babesari buruzko legeak errespetatuz.

### 20. Art. Komunikazioen konfidentzialtasuna eta segurtasuna

Artikulu honek adierazten du indarkeriari eta babesgabetasunari buruzko komunikazio guztiak isilpekoak izango direla eta segurtasun-neurriekin tratatuko direla, haurrak eta nerabeak babesteko.

### 21. Art. Informazioa isilean gordetzeko eginbeharra

Hemen ezartzen da arriskuan dauden adingabeei buruzko informazioa konfidentzialtasun osoz tratatu behar dela, babesteko beharrezkoa ez den inorekin partekatu gabe.



## II. Titulua

# Pertsona adingabeen eskubideak eta eginbeharrak

## I. Kapitula Pertsona adingabeen eskubideak

### 1. Atala Xedapen orokorrak

Atal honek ziurtatzen du Euskadiko haur eta nerabe guztiek Estatuko eta nazioarteko legeen arabera babestuta dituzuela zuen eskubideak. Nabarmendu du beti hartu behar dela kontuan onuragarrien zaizuen, denok berdintasunez eta diskriminaziorik gabe tratatuak izango zaretela ziurtatuz. Gainera, zuei entzutea eta eragiten dizuen edozein erabakitan parte hartzea bermatzen du.

#### 22. Art. **Pertsona adingabeen eskubideak aitortzeko tresna juridikoak**

Haurrek eta nerabeek nazioarteko itunetan, lege estataletan eta autonomikoetan onartuta dauden eskubideak dituzue. Arau horiek zuen eskubideak uneoro errespetatuko direla ziurtatzen dute.

#### 23. Art. **Eskubideak egikaritu ahal izatea bermatzeko neurriak**

Adingabeek eskubidea duzue uler dezakezuen informazioa jasotzeko, babesa eta laguntza eskatzeko eta, behar duzuenean, agintari eskudunen aurrean keak edo salaketak aurkezteko.

#### 24. Art. **Pertsona adingabearen interes gorena gailentzeko eskubidea**

Zuen interesa izango da beti garrantzitsuena zuei eragiten dizueten erabaki guztietan. Horrek esan nahi du lehenik zuen beharrak eta eskubideak hartu behar direla kontuan.

#### 25. Art. **Berdintasunerako eta diskriminaziorik ez jasateko eskubidea**

Lege honek berdin aitortzen ditu adingabe guztiak, eta euskal botere publikoei dagokie haien erabateko erabilera eta errespetua ziurtatzeko bitartekoak ezartzea.

#### 26. Art. **Entzuna eta aditua izateko eskubidea**

Haur eta nerabe guztiok eskubidea duzue zuen eraginpeko prozesuetan entzunak izateko, zuen adinaren eta ulertzeko eta parte hartzeko gaitasunen arabera behar den egokitzapenarekin.



## 2. ATALA Pertsona adingabeen eskubideak

Atal honek zuen eskubide garrantzitsuenak bermatzen ditu, hala nola bizitzeko eskubidea, duintasuna, osasuna, hezkuntza, ongizate materiala eta familia- eta gizarte-bizitzan parte hartzea. Lanean, mundu digitalean eta kontsumitzaile gisa babesa izatea ere bermatzen du, zuen garapena eta ongizatea erraztuko dituen ingurune seguru bat sortuz.

### 27. Art. Oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak

Adingabeek oinarrizko eskubideak dituzue, hala nola bizitzeko eskubidea, fisikoki eta emozionalki ondo egoteko eskubidea, errespetuz tratatuak izateko eskubidea, pribatutasun eskubidea eta identitate eskubidea. Halaber, zuen eskubideak errespetatuko dituen eta zuen hazkuntzan lagunduko duen ingurune batean pentsatzeko, adierazteko, elkartzeko eta biltzeko askatasuna bermatzen da.

### 28. Art. Parte hartzeko eskubidea

Bizitza familiar, sozial, kultural eta politikoan bete-betean parte hartzeko eskubidea duzue. Horren barruan sartzen da zuen bizi-baldintzetan eragin ahal izatea, Haur eta Nerabeen Euskal Kontseiluaren eta Haur eta Nerabeen Foroaren bidez.

### 29. Art. Hazkuntzarako, bizikidetzarako eta familia-harremanetarako eskubidea

Artikulu honek adierazten du zuen gurasoek, legezko ordezkariak edo pertsona harreragileak edo zaintzaileak hazteko, artatzeko eta zaintzeko eskubidea duzuela, bai eta aurreko ahaideekin, anai-arrebekin eta hurbileko beste pertsona batzuekin harremana izatekoa ere.

### 30. Art. Amatasunari buruz erabakitze eskubidea

Neskek eta adingabeek eskubidea dute amatasunari buruz erabakitze, beren adinaren eta heldutasunaren arabera, bai eta haurdunaldia euren borondatez eteteko ere, indarrean dagoen berariazko legeriarekin bat

### 31. Art. Ongizate materialaren oinarrizko mailarako eta gizarte-inklusioko eskubidea

Eskubide honek bizi-baldintza duinak -etxebizitza bat eta oinarrizko hornidurak- edukitzea bermatzen du, eta zuen erabateko gizarteratzea babesten du.

### 32. Art. Osasunerako eskubidea

Osasun zerbitzu osoak eta prebentiboak jasotzeko eskubidea duzue, eta zuen informazio medikoari buruzko konfidentziasuna bermatzen da. Era berean, zure osasunaren sustapena bermatzen da, elikadura osasungarri, orekatu, oso eta behar bestekoa.

### 33. Art. Hezkuntzarako eskubidea

Heziketa integrala eta inklusiboa jasotzeko eskubidea duzue, haur-hezkuntzatik hasi eta bigarren hezkuntzaraino. Gainera, zuen ikaskuntzarako laguntza gehigarria behar duzuenoi laguntza eskaintzen dizue.

### 34. Art. Kulturarako eskubidea

Eskubide honek zuen garapen intelektuala, artistikoa, fisikoa eta soziala sustatzen duten kultura-jardueretarako sarbidea bermatzen du.

**35. Art. Jolaserako eta aisialdirako eskubidea**

Adingabeek eskubidea duzue zuen sozializazioa eta hazkundera sustatuko dituen ingurune seguru, osasungarri eta irisgarri batean jolas eta hezkuntza-jardueretan jolasteko eta gozatzeko.

**37. Art. Ingurumen osasungarrirako eskubidea**

Haur eta nerabeek ingurune natural eta iraunkor batean bizitzeko, Euskal Herriko ingurune naturala ezagutzeko eta gozatzeko, eta naturarekin harreman jarraitua izateko eskubidea duzue.

**39. Art. Lan-inguruneko eskubideak**

Hemen, lanean dituzuen eskubideak arautzen dira, zuek babestuz eta baimendutako edozein jardueratan lan-baldintzak seguruak direla ziurtatuz.



**36. Art. Jarduera fisikorako eta kirolerako eskubidea**

Artikulu honek kirola ingurune seguru eta osasungarrian egiteko duzuen eskubidea babesten du, zuen gaitasunak errespetatuz eta lehia zorrotzegia saihestuz.

**38. Art. Ingurune segururako eskubidea**

Bizitzako eremu guztietan seguruak, tratu onekoak eta inklusiboak diren inguruneetan bizitzeko eta garatzeko eskubidea duzue, gizartean mugitzeko, gozatzeko eta garatzeko eskubidea bermatuko duten hiriko espazio seguru eta egokiak sortuta.

**40. Art. Kontsumitzaile- eta erabiltzaile-eskubideak**

Kontsumitzaile gisa dituzuen eskubideak babesten dira, produktuak eta zerbitzuak zuen beharretara egokituta daudela eta seguruak direla ziurtatuz.

**41. Art. Informaziorako eskubidea eta harremanaren, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzeko eskubidea**

Adingabeek eskubidea duzue zuen adinerako informazio egokia jasotzeko eta teknologia digitalak modu seguruan erabiltzeko, horiek arduraz erabiltzen lagunduko dizuen alfabetatze edo ikaskuntza digitala edukita.



## II. Kapitulua

### Pertsona adingabeen eginbeharrak

Hurrek eta nerabeek arlo guztien bete behar dituzue eginbeharrak: zuen familia errespetatu, etxean lagundu, eskolako arauei jarraitu eta gizartean eta ingurune digitalean arduraz jokatu.

#### 42. Art. **Pertsona adingabeen eginbeharrak**

Pertsona adingabeek zuen eskubideekin datozen eginbeharrak bete behar dituzue, betiere gainerako pertsonen eskubideak errespetatuz.

#### 43. Art. **Familia-eremuko eginbeharrak**

Familia-bizitzan parte hartu behar duzue, senideak errespetatu eta etxeko lanetan lagundu.

#### 44. Art. **Eskola-eremuko eginbeharrak**

Eskolako arauak errespetatu behar dituzue, eskoletara joan, ahaleginak egin eta bizikidetzak baketsua lortzen lagundu.

#### 45. Art. **Gizarte-eremuko eginbeharrak**

Besteak errespetatu, ingurunea zaindu eta teknologiak arduraz erabili behar dituzue.



### III. Titulua

**Haurren eta nerabeen ongizatea eta haien eskubideen egikaritzea sustatzea**

### III. Kapituluak

**Familia-eremuan hazteko eta harremanak izateko eskubidea sustatzeko jarduketak**

Kapitulu honek 55., 56. eta 57. artikuluek biltzen ditu, eta ziurtatzen du zuen familiek laguntza jasoko dutela zuek maitasunez eta errespetuz zaintzeko, familia eta lan-erantzukizunak bateratuz.

### V. Kapituluak

**Osasunerako eskubidea sustatzeko jarduketak**

Kapitulu honek 61., 62., 63., 64. eta 65. artikuluek biltzen ditu, eta osasun arreta egokia, zuen informazioaren pribatutasuna eta zuen osasuna zaintzen ikas dezazuen programak ziurtatzen ditu.

### I. Kapituluak

**Xedapen orokorrak**

Kapitulu hau 46., 47. eta 48. artikuluek osatzen dute, eta ezartzen du zuen ongizatea gurasoen, administrazio publikoen eta gizartearen erantzukizuna dela. Gainera, erakundeen eta gizarte-eragileen arteko lankidetzak sustatzen du, zuen ongizatea bermatu eta sentsibilizatzeko.

### VI. Kapituluak

**Hezkuntzarako eskubidea sustatzeko jarduketak**

VI. kapituluak hezkuntzarako sarbidean berdintasuna, aniztasunarekiko errespetua, eta eskoletan zuen garapenerako eta ongizaterako programak bermatzen dizkizue. Hala adierazten da 66., 67., 68. eta 69. artikuluetan.

### VII. Kapituluak

**Kulturarako eskubidea sustatzeko jarduketak**

Kapitulu honetako 70., 71. eta 72. artikuluetan kulturaz gozatzeko duzuen eskubidea bermatzen da, kultura-jarduera eta -espazioetarako berdintasuna.

### IV. Kapituluak

**Bizi-baldintza duinak izateko eta gizarte-inklusiorako eskubidea sustatzeko jarduketak**

58., 59. eta 60. artikuluek zuen premiei erantzuteko laguntzak, etxebizitza duinerako irispidea eta guztiontzako parte hartzeko aukerak bermatzen dizkizuite, aniztasuna errespetatuz.

### II. Kapituluak

**Oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak sustatzeko jarduketak**

49., 50., 51., 52., 53. eta 54. artikuluek zuentzat garrantzitsuak diren eskubideak babesten dituzte, hala nola tratu ona, intimitatea, identitatea, pentsamendu- eta adierazpen-askatasuna eta zuen intereseko jardueretan parte hartzea.

### VIII. Kapituluak

**Jarduera fisikorako eta kirolerako eskubidea sustatzeko jarduketak**

Kirolaz modu seguru eta eskuragarrian gozatu ahal izango duzue, dituen onurei buruz ikasi ahal izango duzue, eta lehiaketetan askatasunez parte hartu ahal izango duzue. Hori 73., 74., 75., 76. eta 77. artikuluetan bermatuta dago.

## IX. Kapitulua

### Aisialdi hezigarriko jarduerak sustatzeko jarduketak

Kapitulu honek, 78., 79. eta 80. artikuluetan, aisialdi hezitzaile, inklusibo eta segurua izateko eskubidea bultzatzen du, espazio egoki eta irisgarrietan ikasi eta dibertitzeko aukera izan dezazuen.

## XII. Kapitulua

### Ingurune segururako eta mugikortasunerako eskubidea sustatzeko jarduketak

85., 86. eta 87. artikuluek ingurune segurua, irisgarria eta zuentzat pentsatua izateko eskubidea sustatzen dute, eremu egokiekin eta garraio seguru eta lagunkoiaren aukerekin.

## XIV. Kapitulua

### Harremanaren, informazioaren eta komunikazioaren teknologietarako eskubidea sustatzeko jarduketak

Adingabe guztiek modu seguru eta arduratsuan erabili ahal izango duzue teknologia. Ziberjazarpena bezalako arriskuei buruzko kanpainak egingo dira, eta alfabetatze digitala sartuko da eskolan. Horrela jasotzen da 95. eta 96. artikuluetan.

## X. Kapitulua

### Lan-eremuko eskubideak sustatzeko jarduketak

Kapitulu honetako 81. eta 82. artikuluetan, nerabeen lan-eskubideak errespetatuko direla eta hamasei urte baino gehiago dituzuenean prestakuntza eta lan-esperientziak modu seguruan eskuratu ahal izango dituzuela ziurtatzen da.

## XI. Kapitulua

### Ingurumen osasungarria izateko eskubidea sustatzeko jarduketak

Kapitulu honek haur eta nerabe guztiek ingurune natural garbi eta babestua izateko eskubidea izatea bermatzen du. Gainera, 83. eta 84. artikuluetan esaten da administrazioek sentsibilizatu eta sustatu egin behar dutela ingurumenarekiko errespetua eta garapen iraunkorra.

## XIII. Kapitulua

### Informaziorako eskubidea sustatzeko jarduketak

Kapitulu honek, 88. artikulutik 94.era bitartekoetan, informazio egiazkoa eta zuen adinera egokitua eskuratu ahal izatea bermatzen du. Gainera, hedabideek zuen eskubideak errespetatu eta babestu behar dituzte, eduki egokiak eta publizitate argia eta ez-engainagarria eskainiz.

## XV. Kapitulua

### Kontsumoaren arloko eskubideak sustatzeko jarduketak

97-102 artikuluek kontsumo segurua izateko eskubidea babesten dute, kontsumo arduratsuari buruzko kanpainekin eta produktu edo zerbitzu kaltegarri edo desegokiak eskura ez izateko murrizketekin.



## IV. Titulua

### Haur eta nerabeen osasunerako, hezkuntzarako, ongizate materialerako eta gizarte-inklusiorako kaltegarriak diren egoeren prebentzioa, detekzioa eta arreta

103. artikulua ezartzen du euskal administrazioek haurren eta nerabeen osasunari, hezkuntzari, ongizateari edo gizarteratzeari kalte egin diezaiokeen edozein egoera prebenitzeko, detektatzeko eta artatzeko erantzukizuna dutela, eta ahalik eta lasterren esku hartuko dutela, emaitza eraginkorrak bermatuko dituzten metodoak erabiliz.

## I. Kapitula

### Osasun fisiko eta mentalerako kaltegarriak diren egoeren prebentzioa, detekzioa eta arreta

Eusko Jaurlaritzak eta Osakidetzak gaixotasunen prebentzio eta detekzio goiztiarrean lan egingo dute, txertaketan, ingurumenaren zaintzan eta gaixotasun arraroen kontrolan arreta berezia jarritz, 104. artikuluan zehazten den bezala.

## 1. Atala

### Garapen-nahasmenduen prebentzioa, detekzioa eta arreta

Atal honek bermatzen du garapenaren nahasmenduak dituzten zero eta sei urte bitarteko haurrek arreta goiztiarra eta doakoa jasoko dutela, prebentzio eta laguntza integraleko programak barne (105. eta 106. artikulua).

## 2. Atala

### Sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prebentzioa, detekzioa eta arreta

107. eta 108. artikuluek haurdunaldi goiztiarrak prebenitzeko eta zuen sexu-osasuna babesteko programak bultzatzen dituzte, gazteentzat arreta berezia eta pertsonalizatua eskainiz, bereziki neskeentzat.

## 3. Atala

### Obesitatearen prebentzioa, detekzioa eta arreta

Bizimodu osasungarria sustatzen du gizentasuna prebenitzeko, ariketa eta elikadura ona sustatuz eta laguntza integrala eskainiz, arreta psikologiko eta nutrizionala barne, 109. eta 110. artikuluen arabera.

## 4. Atala

### Osasun mentaleko nahasmenduen, jokabide arazotsuen eta mendekotasunen prebentzioa, detekzioa eta arreta

111-115 artikuluek osatutako atal honek haurren eta nerabeen osasun mentala zaintzeko eta jokabide-arazoak eta adikzioak prebenitzeko neurriak ezartzen ditu. Sentsibilizazioaren, osasun-laguntza integralaren eta hezkuntza-laguntza espezializatuaren aldeko kanpainak egiten dira.

## 5. Atala

### Istripuen prebentzioa eta arreta

Atal honetako 116. eta 117. artikuluetan istripuak prebenitzeko eta herritarrek larrialdietan nola jardun behar duten jakiteko neurriak jasotzen dira.



## II. Kapitulu

**Hezkuntza-garapenerako kaltegarriak diren egoeren prebentzioa, detekzioa eta arreta**

### 1. Atala

**Eskolagabetzearen eta eskola-absentismoaren prebentzioa, detekzioa eta arreta**

118. eta 119. artikuluen helburua da haurrek eta nerabeek eskolatik alde egitea edo eskolara ez joatea saihestea, eta hezkuntza-laguntza, familia-laguntza eta laguntza psikologikoa eskaintzea, hainbat erakunderekin koordinatuta.

### 2. Atala

**Eskola-porrotaren prebentzioa, detekzioa eta arreta**

Atal honek ikaskuntzan zailtasunak gaitzen eta eskola-porrota saihesten laguntzeko neurriak ditu, 120. eta 121. artikuluetan adierazten den bezala.

## III. Kapitulu

**Ongizate materialerako eta gizarte-inklusiorako kaltegarriak diren egoeren prebentzioa, detekzioa eta arreta**

### 1. Atala

**Pobrezia-egoeren prebentzioa, detekzioa eta arreta**

Atal honek, 122. eta 123. artikuluetan, zuen familien bizi-baldintzak hobetzeko eta haurren pobrezia prebenitzeko neurriak ditu aztergai.

### 2. Atala

**Bizitegi-bazterketako egoeren prebentzioa, detekzioa eta arreta**

Atal honetako 124. eta 125. artikuluek etxebizitza edukitzeko aukera bermatzen diete arrisku-egoeran edo bizitegi-bazterketako egoeran dauden familiei eta adingabeei.

### 3. Atala

**Gizarte-bazterketaren prebentzioa, detekzioa eta arreta**

Atal honen helburua da bazterkeria-arriskua duten familietako adingabeen gizarteratzea, hezkuntza eta osasuna sustatzea, 126. eta 127. artikuluetan ezarritakoaren arabera.



## V. Titulua

**Haurren eta nerabeen kontrako indarkeria-egoeren prebentzioa, detekzioa eta babesa**

## I. Kapitula

### Xedapen orokorrak

128., 129. eta 130. artikulua biltzen dituen kapitulu honek indarkeriatik babesteko estrategia bat ezartzen du, familia-ingurune seguruan bizi zaretela ziurtatuz eta balizko babesgabetasun-egoerak ebaluatuz.

## II. Kapitula

### Haurren eta nerabeen kontrako indarkeriaren prebentzioa

131. artikulutik 139.era bitartekoek osatzen dute kapitula, eta etxeko, eskolako, kiroleko eta Interneteko indarkeriatik babesteko neurriak ezartzen ditu. Errespetuaren eta tratu onen aldeko kanpainak, krisian dauden familiei laguntzeko kanpainak biltzen ditu, eta eskoletako, kirol-jardueretako eta aisialdi-zentroetako segurtasuna koordinatzeaz arduratuko diren pertsonak izendatzen ditu. Segurtasun digitala eta protokolo espezifikoak ere sustatuko dira eremu guztietan, ingurune seguruak bermatzeko.

## III. Kapitula

### Haurren eta nerabeen kontrako indarkeria-egoeren detekzioa eta esku-hartzea

140. artikulutik 157.era bitartekoek osatzen dute kapitulu hau, eta indarkeriaren aurkako arreta integrala eta babesa bermatzen ditu, horiek pairatzen dituzuenentzako osasun- eta hezkuntza-zerbitzuak lehentasunez eskuratzea barne. Arlo guztietan esku hartzeko protokoloak ezartzen dira: eskolan, osasunean, kirolean, gizartean eta judizialean. Inplikaturako pertsonak indarkeriaren edozein susmo jakinarazi behar dute, eta polizia -bereziki prestatuta-berehalako babesa emango du. Gainera, sistema judizialak zuen eskubideak babesten ditu, prozesu batean parte hartzean kalte gehiago jasan ez dezazuen. Kaltearen konponketa ziurtatzeko eta ingurune digitalean arriskuetatik babesteko neurriak ere badaude, online indarkeria saihesteko kontzientziario eta laguntza-kanpainak.



## VI. Titulua

### Babesgabetasunarekiko zaurgarritasun-egoeren eta babesgabetasun-egoeren prebentzioa, detekzioa eta babesak

## I. Kapituluak

### Xedapen orokorrak

Kapitulu honetan definitzen da gizarteak eta administrazio publikoek nola babestu behar zaituzteten babesgabetasun-egoeretan. 158. artikulutik 165. artikulura esku-hartze goiztiarra sustatzen da, familia-ingurunean jarraitzea segurua denean, eta arriskuan egon daitezkeenei laguntzea. Neurriek zuen ongizatea lehenesten dute, informatuak izateko eta eragiten dizueten erabakietan parte hartzeko eskubidea, zuen familia eta gizarte-integrazioarako bitartekotza- eta babes-zerbitzuekin batera.

## II. Kapituluak

### Babesgabetasunarekiko zaurgarritasun-egoeren eta babesgabetasun-egoeren prebentzioa

Kapitulu honek 166. artikulutik 169.era bitartekoak hartzen ditu, eta laguntza ematen du familiek babes zaitzaten, egoera zailetan haziera-zerbitzuak eta familia-bitartekotza eskainiz. Gainera, kanpainak egingo dira gizarteari zuen eskubideen berri emateko.

## III. Kapituluak

### Babesgabetasuna detektatu eta baloratzea

170. artikulutik 175.era bitartekoetan, kapitulu honek arriskuan dauden adingabeen berehalako arreta eta babesak bermatzen ditu. Agintariek berehala esku hartu behar dute kasu larrietan, eta gizarte-zerbitzuek egoera bakoitza baloratuko dute neurriak hartzeko. Adingabe bakoitzak espediente bat izango du bere kasua dokumentatzeko, eta atzerrian dauden babesgabetasun-egoerei ere erantzungo zaie, betiere zuen ongizatea lehenetsiz.

## IV. Kapituluak

### Administrazioaren babes-jarduna

## 1. Atala

### Administrazioaren babes-jarduna arrisku-egoeretan

Atal hau 176. artikulutik 186.era bitartekoek osatzen dute, eta zuen ongizatea babesteko arrisku-egoeretan nola jokatzeko deskribatzen du. Babesgabeziara iritsi gabe eragiten dizueten familia edo gizarte-arazoak hartzen dira arrisku-egoeratzat. Kasu horietan, gizarte-zerbitzuek kasu bakoitza ebaluatzen dute, eta arrisku-mailaren arabera (arina, moderatua edo larria) esku-hartze proiektu bat idatziko dute, babesgabezia-egoerari aurre egiteko jarduketekin. Familia planean parte hartzera gonbidatzen dute, eta laguntzen ez badu edo arriskuak izaten jarraitzen badu, arrisku-adierazpen formala egiten dute, lekualdatzen badute laguntza ematen jarraituko dutela ziurtatuz.

## 2. Atala

### Administrazioaren babes-jarduna desanparo-egoeretan

187. artikulutik 200.era bitartekoek babesgabezia-kasuetarako esku-hartzea definitzen dute, Aldundiak bere gain hartzen baitu tutoretza, zaintza egokia jasotzen ez baduzue. Prozesua hasteko, abandonua edo tratu txarrak bezalako faktoreak ebaluatzen dira, pobrezia edo desgaitasuna babesgabezia-kausa gisa baztertuta. Interesdunen iritzia entzungo dira ebazpena eman aurretik, eta, presako kasuetan, prebentziozko babesgabetasuna deklaratu ahal izango da. Tutoretza familietan lehenetsiko da, eta adin-nagusitasunarekin edo zirkunstantziak aldatzean amaituko da, lekualdaketa ere etengabeko babesak bermatuz.

## 3. Atala

### Zaintzaren ardura hartzeko eta egikaritzeko prozedura

Kapitulu honek 201. artikulutik 208. artikulura bitartekoak hartzen ditu, eta babesgabezia-kasuetan Foru Aldundiak zaintza bere gain nola hartzen duen arautzen du, familiak eskatuta edo ebazpen judizial bidez. Zaintza formalizatu egiten da, eta bi urte iraun dezake; beste urtebete ere luza daiteke, betiere egoera bakoitzean zuen ongizatea eta babesak bilatuz.

#### 4. Atala

### Zaintzarako eta tutoretzarako xedapen komunak

209. artikulutik 222.era bitartekoek harreran eskubide eta betebeharrak argiak edukitzea ziurtatzen dute, erreferentziazko profesional bat eta zuen beharretara egokitutako babes-plan bat. Lehenetsuna ematen zaio familia-harrerari, zuen jatorrizko familiarekin harremanetan jartzeari eta eragiten dizueten erabakietan parte hartzeari. Gainera, etxekoen unitateen arteko trantsizio arduratsuak planifikatzen dira eta, zuen familiara itzultzen bazarete, jarraipena egingo da. 16 urte dituzuenetik jasoko duzue laguntza orientazioko, laguntza psikologikoko eta hezitzaileko programekin bizimodu independente baterako prestatzeko, 23 urte bete arte.

#### 5. Atala

### Zerbitzuetarako lehenetsuneko irispidea

223. eta 224. artikuluetan, babes-neurriren baten pean zaudetenek osasunean eta hezkuntzan lehenetsuna izatea ziurtatzen du atal honek, arreta mediko berezia eta zuen beharretara egokitutako hezkuntza-laguntza.

#### 6. Atala

### Familia-harrera

225. artikulutik 232.era bitartekoetan, familia-harrera arautzen du atal honek, eta premiazko, aldi baterako, iraunkor eta espezializatu modalitateak eskaintzen ditu, betiere zuen ongizatea lehenetsiz. Familia harreragileak ebaluatzen dira, eta etengabeko laguntza eta jarraipena ematen zaie, zaintza, afektua eta egonkortasuna jasoko dituzuela ziurtatzeko. Harrera adopzioagatik edo jatorrizko familiara itzultzeagatik amai daiteke.

#### 7. Atala

### Egoitza-harrera

233.etik 242.era bitarteko artikuluek aldi baterako neurri gisa arautzen dute egoitza-harrera, familia-harrera ezinezkoa denean, betiere adingabeen ongizatea eta garapena lehenetsiz. Ikastetxeek zuen beharrak bete, integrazioa sustatu eta prestakuntza- eta independentzia-programak eskaini behar dituzte. Zentro horiek aldizka ikuskatzen dira eta muturreko egoeretan bakarrik aplikatzen dituzte neurri zuzentzaileak, betiere hezkuntza-ikuspegitik eta zuen eskubideak errespetatuz.

#### 8. Atala

### Jokabide-arazoak dituzten pertsona adingabeak babesteko zentro espezifikoak

243. artikulutik 254.era bitartekoetan, jokabide-arazoak dituzten adingabeentzako zentroak arautzen ditu atal honek, zuen ongizatea eta eskubideak bermatuz. Zentro horietan sartzeko baimen judiziala behar da, eta aldian-aldian berrikusten da. Segurtasun-neurriak, bisitak eta sendagaiak gainbegiratuta daude eta beharrezko egoeretan bakarrik aplikatzen dira. Gainera, kezkak isilean jakinaraz ditzakezue, eta edozein diziiplina-neurri zuen duintasuna eta segurtasuna errespetatzen ditu.



## V. Kapitulua

### Adopzioa

#### 1. Atala

##### Adopzioa

Atal honek adopzio-prozesua arautzen du, betiere zuen interes gorena errespetatzen dela ziurtatuz. Emantzipatu gabeko edo harreran hartutako adingabeak baino ezin dira adoptatu. Familia adoptatzaileek adinari, egonkortasunari eta prestakuntzari buruzko eskakizunak bete behar dituzte, eta ebaluazio psikosoziala ere egingo zaie. Adopzio irekiak jatorrizko familiarekin harremanetan egoteko aukera ematen du, batez ere anai-arrebekin, lotura garrantzitsuak zaintzeko. Prozesu osoa eta haren baldintzak 255. artikulutik 267.era bitartekoetan daude ezarrita.

#### 2. Atala

##### Nazioarteko adopzioa

268. artikulutik 275.era bitartekoetan zehazten denez, nazioarteko adopzioak legeen eta hitzarmenen arabera egiten direla bermatzeko, atal honek beste herrialde batzuekin akordioak sortzea, erakunde bitartekariak egiaztatzea eta prozesuen jarraipena egitea arautzen ditu. Eusko Jaurlaritzak Batzorde Tekniko baten bidez ikuskatzen ditu prozedura horiek, eta ziurtatzen du egiaztatutako erakundeek soilik kudeatzen dituztela adopzioak.

#### 3. Atala

##### Adopzioaren osteko fasea

276. artikulutik 279.era bitartekoetan, laguntza eta jarraipena bermatzen ditu atal honek, zuen adopzio-familia berrira ondo egokitu zaitezten. Lehen bi urteetan, Aldundiek sei hilean behin egiten dituzte txostenak, eta orientazioa ematen dute kasu konplexuetan. Gainera, zuen jatorriari buruzko informazioa gordetzea bermatzen da, eta adin nagusitasunera iritsitakoan hori ezagutzeko eskubidea errespetatzen da.

## VII. Titulua

### Gizarte- eta hezkuntza-arloko arreta ematea zigor-legearekin gatazkan dauden pertsona adingabeei

#### I. Kapitulua

##### Eremu subjektiboa

Kapitulu honetako 280. eta 281. artikulua zigor-legearekin gatazkan dauden adingabeei aplikatzen zaie, 14 urte baino gutxiago dituztenei izan ezik.

#### II. Kapitulua

##### Prebentzio-ekintza, printzipioak eta baliabide material eta pertsonalak

282. artikulutik 285.era bitartekoen bidez, adingabe arau-hausleei arreta emateko printzipioak ezartzen ditu kapitulu honek, erakundeen arteko koordinazioa sustatuz, haien eskubideak eta baliabide egokiak errespetatuz, eta homologatutako eta gainbegiratutako erakundeen laguntzarekin.

## III. Kapitulua

### Neurrien tipologia eta neurrien betearazpena

Kapitulu honek 286. artikulutik 295.era bitartekoak hartzen ditu, eta legearekin gatazkan dauden adingabeentzako neurriak ezartzen ditu, gizarte-inguruneko programetatik hasi eta ikastetxeetan barneratzeraino. Zentroek segurtasun-baldintzak bete behar dituzte, lau hilean behin berrikusi behar dira eta birgizarteratzea bideratuta egon behar dute. Adingabe bakoitzak bere beharretara egokitutako esku-hartze plan bat du, hezkuntza- eta osasun-eskubideekin. Zaintza-neurriak muturreko egoeretan bakarrik aplikatzen dira, betiere zuen duintasuna eta eskubideak errespetatuz.

## IV. Kapitulua

### Diziplina-araubidea

296. artikulutik 298.era bitartekoetan, barneratze-aldian dauden adingabeentzako zehapenak arautzen ditu kapitulu honek, eta proportzionalak, errespetuzkoak eta defentsa-eskubidea dutenak direla ziurtatzen du, bitartekotza eta neurri leheneratzaileak sustatzeaz gain.

## V. Kapitulua

### Neurriak betearaztearen jarduketa osagarriak

Neurri judizialak amaitutakoan zuek gizartera eta heldutasunera pasatzea ziurtatzen du kapitulu honek, babesaren eta emantzipazio-programen arteko ekintza koordinatuen bidez. 299. artikulutik 301.era bitartekoetan dago zehaztuta guztia.

## VIII. Titulua

**Erakunde arteko lankidetzak eta koordinazio-organoak eta aholkularitzako eta gizarte-partaidetzako organoak**

### I. Kapitula

**Erakunde arteko eta sektore arteko elkarlan, lankidetzak eta koordinaziorako organoak**

Kapitulu honek administrazioen arteko lankidetzak sustatzen du haurrak eta nerabeak babesteko. Erakunde arteko organo batek koordinatzen ditu politikak Eusko Jaurlaritzarekin, Aldundiekin eta Udalekin, 302.etik 304.era bitarteko artikuluetan zehazten denez.

### II. Kapitula

**Aholkularitzako eta partaidetzako organoak**

Kapitulu honek zuen eskubideei eragiten dieten politikan parte hartzeko espazioak ziurtatzen ditu. Euskal Kontseiluaren eta Haurren Foroaren bidez, administrazioek, haurrek eta nerabeek aktiboki laguntzen dute, 305. artikulutik 307.era bitartean deskribatzen den bezala.

## IX. Titulua

**Haur eta nerabeentzako arretaren eremuko garapenak eta hobekuntzak**

### I. Kapitula

**Informazioa eta arretaren kalitatea**

Kapitulu honek Haur eta Nerabeei buruzko Informaziorako Euskal Sistema ezartzen du, zuen egoera eta beharrak hobeto ezagutzeko eta kalitatezko zerbitzuak ziurtatzeko. Administrazioek kalitatezko arreta eskaini behar dute osasunean, hezkuntzan eta kulturaren bereziki arriskuan zaudetenei. Era berean, prestakuntza espezializatua eta jarraitua bermatzen zaie langileei, sexu-delitun aurrekari penalen ziurtagiriarekin, 308. artikulutik 314. artikulura zehazten den bezala.

### II. Kapitula

**Haurren eta nerabeen behatokia**

Behatoki honek, haurren inguruko politikak aztertzeaz eta aholkatzeaz arduratzen denak, txosten irisgarriak argitaratzen ditu eta zuen datu pertsonalen konfidentziaz babesten du. Gainera, 315-318 artikuluen arabera, haur eta nerabeen ongizatea aztertzen du, zuen eskubideak sustatzen ditu eta administrazioei aholkularitza ematen die zuen bizi-kalitatea hobetzeko politikak ezartzeko.



## X. Titulua

### Eskumen- araubidea

Titulu honek Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek eta Udalek haurrak eta nerabeak babesteko bete behar dituzten eginkizunak zehazten ditu.

## XI. Titulua

### Arau-hauste eta zehapen administratiboak

#### I. Kapitula

##### Arau-hausteak

Kapitulu honek zehapenak ezartzen ditu pertsonak eta erakundeek haurren eta nerabeen eskubideak babesten dituzten arauak betetzen ez dituzten kasuetarako, 322. artikulutik 329. artikulura bitartean adierazten den bezala. Arau-hausteak arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke. Berrerortzea eta preskripzio-epeak ere zehaztuta daude.

#### II. Kapitula

##### Zehapenak

Kapitulu hau osatzen duten 330, 331, 332, 333 eta 334. artikuluek Legea ez betetzeagatik ezartzen diren zehapenak deskribatzen dituzte, hala nola ohartarazpenak, isunak, dirulaguntzak itzultzea edo ezgaitzea. Arau-hauste arinak ohartarazpenarekin edo 10.000 eurorainoko isunarekin zehatuko dira, larriak 10.001 eta 100.000 euro bitarteko isunarekin eta arau-hauste oso larriak 100.001 eta 600.000 euro bitarteko isunekin.

#### III. Kapitula

##### Prozedurazko xedapenak

Zuek babesteko zehapenak nola aplikatzen diren ezartzen du. Udalek, Foru Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak ezar ditzakete zehapenak (335, 336 eta 337. artikuluek).


## XEDAPEN GEHIGARRIAK, IRAGANKORRAK ETA AZKEN XEDAPENAK

**Xedapen gehigarrietan** arreta-zerbitzuak sortzea, indarkeriaren aurkako protokoloak, azterketak eta ebaluazio-tresnak eguneratzea sartzen dira. **Xedapen iragankorrek** aldi baterako arauak ezartzen dituzte, berariazko erregulazioak sortu arte. **Xedapen indargabetzaileak** lege honen aurka doazen aurreko arauak deuseztatzen ditu, eta **azken xedapenek** erregelamenduak garatzeko eta egiturak egokitze epeak zehazten dituzte.



# 2/2024 LEGEA, HAUR ETA NERABEENA

Haur eta nerabeentzako  
egokitzapena



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

ONGIZATE, GAZTERIA ETA  
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,  
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO



**ZEUK ESAN, Haurtzarorako  
eta Nerabegarorako  
Laguntza Zerbitzua**

 **116111**